









Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

2025eko ekainean, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz ondoko aldaketak izan zituen elektrizitatearen kontsumoak EAEn:

- Guztizkoa: -%0,8. Urteko metatua, -%2,2.
- Industria:%2. Urteko metatua, -%1,5.
- Eraikinak: -%1,9. Urteko metatua, -%0,5.
- Etxebizitzak: -%1,2. Urteko metatua, %0,6.
- Zerbitzuak: -%2,3. Urteko metatua, -%1,3.
- Siderurgia: -%1,1. Urteko metatua, %1,8.

OHARRA:Arau-aldaketak direla eta, 2025eko uztailetik aurrera ez dago daturik.

Gas naturala

2025eko abuztuuan, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituen gas naturalaren kontsumoak EAEn:



- Guztizkoa: -%15,2. Urteko metatua, -%4,4.
- Zentr. term.: -%18,6. Urteko metatua, %13,5.
- Zerbitzuak: -%9,3. Urteko metatua, %0,7.
- Etxebizitza: -%10,6. Urteko metatua, %3,8.
- Industria: -%8. Urteko metatua, -%6,1.

Erregaiak garraioan

2025eko uztaillean, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituzten garraiorako erregaien kontsumoak EAEn:

- Guztizkoa: %3,6. Urteko metatua, -%2,3.
- A Gasolioa:%4,8. Urteko metatua, -%2,6.
- Gasolinak: -%3. Urteko metatua, -%0,5.

Iturriak: EEEren lanketa, CORES, Enagás, Nortegas eta Iberdrolaren (energia fakturatu) datuetan oinarrituta.





Energia krisia EAEn

Energia elektrikoa
EAEko industria sektorearen energia kontsumo elektrikoaren aldaketak 2025eko ekainean, aurreko urteetako hil beraren aldean:

- 2025 vs 2022: -%1,3. Urteko metatua, -%1,7.
- 2025 vs 2023: %0,3. Urteko metatua, -%2,2.
- 2025 vs 2024: %2. Urteko metatua, -%1,5.

EAEko eraikin sektorearen energia kontsumo elektrikoaren aldaketak 2025eko abuztuan, aurreko urteetako hil beraren aldean:

- 2025 vs 2022: %2,6. Urteko metatua, -%2,1.
- 2025 vs 2023: %4,1. Urteko metatua, %1,1.
- 2025 vs 2024: %3,1. Urteko metatua, %0,7.





Gas naturala
EAEko gas kontsumoaren (industria eta eraikinak) aldaketak 2025eko abuztuan, aurreko urteetako hil beraren aldean:

- 2025 vs 2022: %11,9. Urteko metatua, -%13,9.
- 2025 vs 2023: -%14,4. Urteko metatua, -%7,6.
- 2025 vs 2024: -%14,4. Urteko metatua, -%7,6.

EAEko elektrizitatearen sorkuntzan erabilitako gas kontsumoak aldaketak 2025eko abuztuan, aurreko urteetako hil beraren aldean:

- 2025 vs 2022: -%65,8. Urteko metatua, -%56,8.
- 2025 vs 2023: -%21,5. Urteko metatua, %3,9.
- 2025 vs 2024: -%18,6. Urteko metatua, %13,5.









Erregaiak garraioan
EAEn 2025eko uztailan A gasolinaren kontsumoak aurreko urteetako hilabete berdinarekin izan ziren aldaketak:

- 2025 vs 2022: %0,1. Urteko metatua, -%3,6.
- 2025 vs 2023: %0,2. Urteko metatua, %3,9.
- 2025 vs 2024: %4,8. Urteko metatua, -%2,6.

EAEn 2025eko maiatzan kerosenoaren kontsumoak aurreko urteetako hilabete berdinarekin izan ziren aldaketak:

- 2025 vs 2022: 21%. Urteko metatua, %35,4.
- 2025 vs 2023: 22,2%. Urteko metatua, %18,5.
- 2025 vs 2024: 33,2%. Urteko metatua, %5,2.

Iturriak: EEEn lanketa, CNMC, Enagas eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.



Nazioarteko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

2025eko abuztuan, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuz, munduko petrolioaren kontsumoa eta bere aldaketak ondokoak izan ziren:

- Gutizkoa: 104,6 Mbpd, (%1,17)
- Europa: 14,6 Mbpd, (%0)
- EE.BB: 20,8 Mbpd, (%0,8)
- Txina: 15,9 Mbpd, (%1,3)

Munduan, azken 12 hilabeteen batez besteko kontsumoa 103,4 Mbpd izan da 2025eko abuztuan.







Gas naturalaren kontsumoa munduan

OCDEko herrialdeetan, 2025eko ekainean, aurreko urtekoarekin alderatuz, gas naturalaren kontsumoa zonaldeka eta beren aldaketak ondokoak izan ziren:

- OCDE Osoa: 120,9 bcm (-%0,2).
- OCDE Amerika: 83,3 bcm (%2).
- OCDE Asia-Ozeania: 14,8 bcm (-%10).
- OCDE Europa: 22,8 bcm (-%1).

2025eko ekainean, Alemaniak, Italiak, Erresuma Batuak, Herbehereak, Frantziak eta Espainiak OCDE-Europa guztiaren %65,8a kontsumitu zuten.

Iturriak: EEEn lanketa, AIE-ren eta EIA-ren datuetan oinarrituta.



Energiaren kontsumoa Espainian

Energia elektrikoa

2025eko abuztuan, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituen elektrizitateko kontsumoak Espainian:

Guztizkoa: -%1,6. Urteko met. %2,2

Sorkuntza elektrikoari dagokionez, 2025eko abuztuan ondokoa izan da:

- Berriztagarriak: %57. Urteko met. %59
- *Eolikoa: %16. Urteko met. %21
- Erregai fosilak: %20. Urteko met. %18
- Nuklearra: %23. Urteko met. %20

Gas naturala

2025eko abuztuan, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituen gas naturalaren kontsumoak Espainian:







- Guztizkoa: %1,4. Urteko met. %5,4.
- Zentr. term.: %21,7. Urteko met. %36,4.
- Gainontzekoa: -%8,7. Urteko met. -%3,3.

Erregaiak garraioan

2025eko uztailean, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituzten garraiorako erregaiek Espainian:

- Guztizkoa: %7,9. Urteko metatua, %2,8.
- A Gasolioa: %7,4. Urteko metatua, %1,3.
- Gasolinak: %9,5. Urteko metatua, %7,8.

Iturriak: EEEren lanketa, REE, ENAGAS GTS eta CORESen datuetan oinarrituta.



Energiaren prezioak

Petrolioaren prezioa
Brent upelaren batez besteko prezioa 67,87\$ (58,4€) izan zen abuztuan. Aurreko urteko hilabete berdinarekin alderatuz, prezioa % 16 baxuagoa izan zen (%20,04 baxuagoa eurotan).

Gas naturalaren prezioa
Europako merkatuetako prezioak hurrengoak izan ziren abuztuan:
-Holandar TTFa: 32,2 €/MWh.
-Espainiar MIBGASa: 32,6 €/MWh.
-Alemaniako THE Indexa: 33,1 €/MWh.







Gas naturalaren prezioak nazioarteko merkatuetan hurrengoak izan ziren abuztuan:
- EEUU Henry Hub: 8,5 €/MWh.

Elektrizitatearen prezioa
Espainian, eguneroko merkatuan, elektrizitatearen prezioa 68,4 €/MWh izan zen abuztuan, aurreko urteko hilabete berarekin konparatuta %24,8 baxuagoa. Alemanian berriz SPOT merkatuko hilabeteko batez besteko prezioa 77 €koa izan da eta Frantzian berriz 54,4€koa.

Erregaien prezioak
2025eko abuztuan garraiorako erregaien prezioa eta aurreko urteko hilabete bereko prezioarekiko diferentzia, ondokoak izan ziren EAEn:
- A Gasolioa: 1,44 €/l. (-%2,7).
- Gasolinak: 1,5 €/l. (-%6,8).

CO₂-aren prezioa
CO₂-aren isurtzeko eskubideak 71,1 €/t-ko balioa lortu zuen abuztuan.

Iturriak: EEEren lanketa, EIA, OMIE, OMIP, Powernext, MIBGAS, JOGMEC, THE eta beste iturri batzuen datuetan oinarrituta.



Elektrizitatearen ekoizpena Europan

Espainia
Espainian, sorkuntza elektrikoak, orokorrean, eta energia berriztagarriak, bereziki, ekoizpen hidroelektrikoren mailaren eraginpean daude, klimatologiak baldintzatzen duena (urte lehorra vs. urte hezea).

2025eko ekainean, azken 12 hilabeteen batz besteko elektrizitatearen ekoizpena ondokoa izan zen iturriaren arabera:

- Berriztagarria: %57 (eolika %21).
- Nuklearra: %19.
- Fosila: %24 (ikatz %1).

Azken 12 hilabeteetako batez besteko ekoizpena 23564 GWh izan da.

Frantzia
Frantzian, energia nuklearrak, pisu nabarmena izaten jarraitzen du.

2025eko ekainean, azken 12 hilabeteen batz besteko elektrizitatearen ekoizpena ondokoa izan zen iturriaren arabera:

- Berriztagarria: %28.
- Nuklearra: %68.
- Fosila: %4.

Azken 12 hilabeteetako batez besteko ekoizpena 44818 GWh izan da.

Alemania
Alemaniako elektrizitate sorkuntzan, azpimarratzekoa da erregai fosilen parte-hartzea.

2025eko ekainean, azken 12 hilabeteen batz besteko elektrizitatearen ekoizpena ondokoa izan zen iturriaren arabera:

- Berriztagarria: %57 (eolika %25).
- Nuklearra: %0.
- Fosila: %43 (ikatz %23, gas naturala %17).

Azken 12 hilabeteetako batez besteko ekoizpena 39471 GWh izan da.

Iturriak: EEEn lanketa, AIE-ren datuetan oinarrituta.